Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA KULTURA

# intxaurrondo. Berri

kultur etxea

ekitaldi aretoa **tailer** liburutegia **haurren saila** helduen saila fonote
**fonoteka** internet **bideoteka** hemeroteka

centro cultural

sala de actos **taller** biblioteca **sección infantil** sección adultos **fonotec**
eca internet **videoteca** hemeroteca

Hemen dugu, azkenik, Intxaurrondo Berri Kultur Etxea. Kultur etxe berri hau pertsona guztientzat irekita dago, ekipamendu berriak eta hiritar guztien gozamenerako pentsatutako zerbitzuak ditu, eta Larrotxene Kultur Etxea 1987tik hasita eskaintzen ari den zerbitzuaren osagarri da.

Kultur etxe berri honek hiritarrentzako topagune bihurtzea du helburu, adinezko edo ideologiazko bereizketarik gabe: hau da, kultur sorkuntzarako, aisiarako eta tolerantzia ikasteko gune bihurtzea.

DONOSTIA KULTURAren ahalegina auzoko elkarteen ekarpenekin osatuko da eta, denborarekin, zabalduz joango dira jarduerak; izan ere, kultur etxeak egunez egun eraikitzen dira, denen artean eraiki ere.

**ODON ELORZA** Donostiako Alkateak

El Centro Cultural Intxaurrondo Berri es ya una realidad. Este nuevo centro que surge en este barrio es un espacio abierto a todas las personas con novedosos equipamientos y servicios pensados para el disfrute de todos los ciudadanos y complementa el servicio que desde 1987 el Centro Cultural Larrotxene viene ofreciendo.

Esta nueva casa de cultura tiene como objetivo convertirse en un ámbito de encuentro entre los ciudadanos sin distinción de edad ni ideología, en un espacio de creatividad cultural, ocio y aprendizaje de la tolerancia.

El esfuerzo de DONOSTIA KULTURA se complementará con las aportaciones de las entidades vecinales para lograr un inicio de actividades que se irán ampliando con el tiempo, ya que un centro cultural va adquiriendo vida y se construye, día a día, entre todos y todas.

**ODON ELORZA** Alcalde de Donostia-San Sebastián




Gaztela kalea 2, 20015 Donostia, tfnoa.: 943 279343 faxa: 943 275241

intxaurrondo. Berri

www.donostiakultura.com

kultur etxea

intxaurrondo Berri

centro cultural









## Ekitaldi aretoa

Mintegiak, topaketak, hitzaldiak, ikus-entzunezko proiekzioak; horiek eta beste jarduera batzuk programatu ahal izango dira gune honetan, erabat horniturik baitago ikus-entzunezko materialekin, eta 130 lagunentzako tokia baitu.
Gainera, areto honek panel bat dauka bitan banatzeko eta, hartara, aldi berean bi jarduera egiteko aukera ematen du.
Bestalde, erdibituta eratzen diren bi geletako batean, auzotar eta inguruetakoentzat interesgarri gerta daitezkeen erakusketak programatu ahal izango dira.

## Tailerra

Ikastaroak eta tailerrak emango dira areto honetan. Arte plastikoak, eskulangintza, antzerkia, dantza, interes orokorreko gaiak, etab.: era horretako jarduerak eskainiko zaizkie haur, gazte eta helduei.
Areto hau, gainera, inguruko eta hiriko elkarte eta bazkunen bileretarako erabili ahal izango da.

## Sala de Actos

Seminarios, encuentros, conferencias, proyecciones audiovisuales; éstas y otras actividades podrán ser programadas en este espacio totalmente equipado con materiales audiovisuales y con capacidad para 130 personas.
Además, esta sala cuenta con un panel que podrá dividir la sala en dos para la realización de dos actividades simultaneas.
Por otro lado, en una de las dos salas que resulta de la división se podrán programar exposiciones de interés para la zona.

## Taller

Una sala dedicada exclusivamente a cursos y talleres. Artes plásticas, artesanía, teatro, danza, temas de interés general, etc. formarán parte de las actividades que regularmente se ofrecerán a niños/as, jóvenes y adultos.
Del mismo modo, esta sala podrá utilizarse para reuniones de las asociaciones y colectivos del entorno y de la ciudad.

## Liburutegia

**Zerbitzuak:** Informazio bibliografikoa. Irakurgela (helduak eta haurrak). Mailegua (liburuak, CDak, bideoak). Fonoteka. Internet. Bideoteka. Hemeroteka. Irakurzaletasuna pizteko jarduerak.
**Haurren saila:** Txikientzat pentsatutako gunea. Liburuak jolas dira, eta jolasek liburuak dituzte oinarri.
**Helduen saila:** Liburu ugari interesatu guztien eskumenean, hala kontsultarako nola mailegutan.
**Fonoteka:** Sei entzutoki era guztietako musika entzunez gozatzeko, eta mailegu-zerbitzu bat etxean gehien interesatzen zaigunaz gozatzeko.
**Internet:** Interneteko 3 leku edonork erabiltzeko moduan, teknologia berri honetaz baliatzeko
**Bideoteka:** Bideoak ikusteko 2 leku, VHS eta DVD sistemetan.
**Hemeroteka:** Egunkari eta aldizkari mordoa, hirian eta munduan barrena gertatzen denaren jakinean egoteko.





## Biblioteca

**Servicios:** Información bibliográfica, Sala de lectura (adultos e infantil), Préstamo (libros, CDs, vídeos). Fonoteca, Internet, Videoteca, Hemeroteca. Actividades de animación a la lectura.
**Sección infantil:** Un espacio pensado para los más pequeños/as donde los libros son juegos y los juegos se basan en los libros.
**Sección adultos:** Un gran número de libros a disposición de todos los interesados/as, tanto para la consulta como para el préstamo.
**Fonoteca:** 6 puestos de audición para disfrutar escuchando todo tipo de música y un servicio de préstamo para gozar en casa de aquello que más interesa.
**Internet:** 3 puestos de Internet a disposición del público para disfrutar de esta nueva tecnología.
**Videoteca:** 2 puestos de visionado de vídeo en sistema VHS y DVD.
**Hemeroteca:** Un buen número de diarios y revistas para ponerse al día de todo lo que ocurre en tu ciudad y en el mundo.